



III. ERANSKINA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, DEIALDIAN ESKATZEN DIREN BETEKIZUNAK BETETZEARI BURUZKOA

jaun-
andreak, (zehaztu taldeko kargua)

BERE ERANTZUKIZUNPEAN HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

1. Tokiko ekintza taldeak ez dauka ezarrita dirulaguntzen onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan adierazitako debekurik.
2. Entitate eskatzaileak ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galarazten duen zehapen penal edo administratiborik, ez eta horretarako inhabilitazioa ekartzen duen legezko debekurik ere.
3. Nafarroako Berdintasunerako Institutuari baimena ematen dio egiaztatzeko irabazi asmorik gabeko elkarteak edo entitateak egunean dauzkala zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
4. Tokiko ekintza taldea indarrean dagoen legeriaren arabera eratua dago, eta izaera juridikoa du.
5. Bere jarduera-eremuko lurraldean biztanle daude: emakume eta gizon.
6. Langile bat du kontratatua edo diruz laguntzen ahal den epean kontratatu behar du (adierazi zein den kasua) berdintasuneko agente gisa, B mailakoa eta lanaldi osoan, eta ez du aurreko deialdietan diruz lagundu den kontrataziorik eten, ohiz kanpoko kasuren batean izan ezik eta, halakorik izan bada, behar bezala frogatu da Nafarroako Berdintasunerako Institutuan.
7. Egun honetan,.....(e)an, (erabakia hartu duen organoa) erabaki zuen kontratazioa egitea tokiko ekintza taldean berdintasuneko agentearen lanposturako.
8. Indarra duen legeriaren arabera kontratatu da berdintasuneko agentea eta hauxe da kontratuaren hasierako eguna:
9. Tokiko ekintza taldearen egitura organikoan badago batzorde bat edo berdintasun arlo bat, berdintasun arloan eskumenak dituen, edo emakumeen arlo bat. (Adierazi bidezko dena)
10. 2022ko aurrekontuan,(e)an partidak edo diru-izendapenak onetsi dira alorrerako, kontratazioaren ondoriozko gastuak ordaintzeko.



1. Badu aukera berdintasunerako plana edo emakume eta gizonen arteko berdintasunerako plan estrategikoa edo genero berdintasunerako lan egitasmoa, 'Udalaren berdintasun arloetako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea' izeneko dokumentuan oinarrituta.
2. Egun honetan,.....(e)an,(erabakia hartu duen organoa) erabaki zuen prestatzen hastea aukera berdintasunerako plana edo emakume eta gizonen arteko berdintasunerako plan estrategikoa edo genero berdintasunerako lan egitasmoa, 'Udalaren berdintasun arloetako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea' izeneko dokumentuan oinarrituta.
3. Egun honetan(e)(a)n, konpromisoa hartu zen berdintasuneko agentearen etengabeko prestakuntza baimentzeko Nafarroako Berdintasunerako Institutuak antolatzen dituen prestakuntza programetan, halakorik egiten bada.

4. Tokiko ekintza taldea:

Beste edozein administrazio publikoren edo entitate pribatu baten laguntzarik ez duela jaso eta/edo eskatu xede eta helburu bererako, emanak nahiz ebatzi gabe egon.

Xede eta helburu bereko laguntzarik eskatu dio administrazio publikoren edo entitate pribaturen bati, eta/edo haietatik laguntzaren bat jaso du (jada emanak nahiz oraindik ebatzi zain). Kasu honetan, bete taula hau:

Programa	Eskaera-data	Entitate emailea	Zenbatekoa (eurotan)	Gauzatzeko epea	Administrazio-egoera
					<input type="checkbox"/> Ebatzi zain <input type="checkbox"/> Eman
					<input type="checkbox"/> Ebatzi zain <input type="checkbox"/> Eman
					<input type="checkbox"/> Ebatzi zain <input type="checkbox"/> Eman
					<input type="checkbox"/> Ebatzi zain <input type="checkbox"/> Eman

DATA ETA SINADURA